

MUNDUKO FESTARIK ONENAK

2024ko martxoaren 21ean

Andoingo Santa Krutzek merezitako ospea dute, agian, egutegian dauden lehen udako jaiak direlako. Andoaindar askorentzat jai maitagarriak dira, esanahi berezikoak. Batez ere, Leizaur inguruan jaio eta bizi direnentzat.

Santa Krutzak maiatzaren 3an hasten dira eta aste oso bat irauten dute. Edozein lekutako jendea etortzen da Andoainera egun horietan zehar.

Eider Blazquez, Oihan Duarte, Iban Melendez, Alba Valor

HISTORIA

Maiatzaren 3an, munduko herrialde askotan, "Santa krutzak" jaialdia ospatzen da, IV. mendean ezarria. Herri tradizio honek oso antzinako jatorria du Jerusalem eta, oraindik, hainbat herrialdetan ospatzen da.

Jai hau Espainia, Txile, Ekuador, El Salvador, Guatemala, Mexiko, Paraguai, Peru, Trinidad, Tobago, Argentina, Kolonbia eta Venezuelako hirietan ospatzen da. Leku horietako askotan, gurutzeak lore koloretsuekin apaintzen dituzte, prozesioak eta dantzak egiten diren bitartean.

Esaten da, IV. mendean, Konstantino paganoak Maxentzio azartzailerearen aurkako borroka ikaragarri bati egin behar izan zion aurre. Ekitaldiaren aurreko gauean, amets bat izan zuen, non airean gurutze argitsu bat ikusi zuen eta ahots bat entzun zuen: "Seinale honekin irabaziko duzu". Batailaren hasieran, gurutzea hainbat batailoiko banderen gainean jartzeko agindu zuen eta oihukatu zuen: "Nire amak, Elenak, sinesten duen Kristorengan konfiantza dut".

Garaipena erabatekoa izan zen, Konstantino enperadore bihurtu zen eta askatasuna eman zien kristauai. Santa Helenak, enperadorearen amak, bere semeari baimena eskatu zion eta Jerusalemara joan zen Kristo hil zen Gurutze Santuaren bila. Indusketa asko egin ondoren, hiru gurutze aurkitu zituzten eta ez zekiten bereizten zein zen Jesusena.

Hala, hiltorian zegoen emakume bat hartu zuten, zeina lehen gurutzea ukitzean, bere gaixotasunak okerrera egin zuen. Bigarren gurutzean, emakume gaixoa berdin geratu zen, baina hirugarren egur zatia ukitzean, osasuna berreskuratu zuen.

Santa Helenak Gotzainarekin eta fededunekin eraman zuen gurutze hau prozesioan Jerusalemeko kaleetan zehar. Bidean, semea lurperatzera eramaten ari zen emakume alargun bat zegoen, beraz, Gurutzea hurbildu zioten hildakoari eta berpiztu zen. Igeltxeroen eguna ospatzen da ere.

Munduko zenbait tokitan, eraikuntzako langileek ohitura dute fatxadetan goialdean lorez eta ehun-paperez apaindutako egurrezko gurutze bat jartzeko.

Gurutze hau apaiz batek bedeinkatzera bidaltzen dute. Egun honetan ere ohikoa da igeltxeroen nagusiek bazkari bat egitea.



PERTSONEN ESPERIENTZIA

*LaSalle Berrozpeko
4 ikasle-irakasleei
galdetu diegu zer
esan nahi duten
Santa Krutzek
beraientzat eta
hauxe esan digute:*



PROGRAMA


Iaz, bigarren egunean, goizean, artisautza azoka, kalejira, euskal neska-mutilen jolasa egin zuten eta, ondoren, janari herrikoia egin zen. Eta, arratsaldean, erreka jaitsiera, oso dibertigarria dena, eta gero bakailao lehiaketa. Ondoren, elektro-txaranga eta, 3-4 orduren buruan, Peña Santa Kruzeko danborrada .Eta, gauean, amaitzeko kontzertu eta erromeriarekin.

Hirugarren egunean, kaleko festak eta kontzertuak egin ziren goizean eta, arratsaldean, sagardo dastaketa, talo postua, kontzertu gehiago eta, gaua hasteko, suzko zezen tipikoa egin zituzten, ikaragarria dena. Eta, ondo bukatzeko, kontzertuak eta erromeriak egin zituzten.

Laugarren egunean, kros herrikoia eta bizikleta lasterketa egin zituzten. Arratsaldean, haurrentzako elektro txaranga, dantza batzuk, haurrentzako bizikleta jaialdia eta herri danborrada egon zen.

Kuadrilla egunean, jolasak egin ziren taldearekin, txarangarekin batera. Eguerdian, taldearen irekiera eta, ondoren, talde bazkaria. Jana bukatzean, bingo musikatua egon zen. Gero, DJ bat etorri zen herrian zehar kalejira bat egitera eta, gero, txosnetan geratu zen festarako.

Eta azken goizean, dulzaneiroak eta bandera txistulariak eskopeteroek lagunduta. Aldi berean, ezpata dantza eta gero meza nagusia. Gero berriro ezpata dantza eta puzgarriak. Pintxo lehiaketa plaza artean eta jaiak dantzekin amaitzeko eta, azkenik, zezensuzkoa.



AITOR
IBARGUREN

Koordinatzailea

SANTAKRUTZETZETAKO KORDINATZAILE NAGUSIARI ELKARRIZKETA

Zer da zailena antolatzeke orduan?

Batez ere, jendea antolatzea. Antolaketa taldean 8 pertsona gaude eta, orokorrean, 100 pertsona inguru parte hartzen dute. Denak koordinatzea ekintza oso zaila da, ez da bakarrik, jendeak zer egin behar duen, nola eta non egin behar duen antolatzea, askoz lan gehiago dago atzetik.

Adibidez, eragileak koordinatzea, txistulariei galdetzea zer behar duten, non eta zer ordutan, zenbat jende egingo den... Eta, horrela, musika taldeekin, txirringulariekin...

Nola antolatzen zarete?

Bakoitzak bere denbora librean egin behar duena egiten saiatzen da eta dena 3 ekintzetan banatzen dute: Soziala, Kirola eta Kultura

Ze ekintza egiten dira?

Denetik, batez ere, hiru ekintza mota ezberdin egiten dira. Kirola, kultura eta soziala. Adibidez, krosa kirolean sartzen da, ajedreza ere bai, kruadilla eguna sozialean sartzen da, eta musika edo antzerki bat kulturaren sartzen da.

Zenbat diru gastatzen duzue eta nola lortzen duzue diru hori?

62.000€ gastatzen dira Santa Krutzetan eta diru guzti hori udaletxeak ematen du.

Partaideek ez dute zentimorik gastatzen beraien poltsikotik. Normalean, udaletxeak urte osoan zehar izaten du gordeta diru hori, Santa Krutzetarako.

Zer da gehien kostatzen dena?

Aurreko lana gehien kostatzen duen jarduera da, asteko biltzeko konpromezua eta gauzak haien denbora librean egin behar dituztela.

Zenbat pertsonet antolatzen dute?

8 pertsona bakarrik dira dena antolatzen eta horrek lan asko, buruko minak eta estres asko suposatzen du.

Noiztik hasten zarete antolatzen?

Urtarrila hasieran hasten gara gauzak antolatzen, astero biltzen gara eta astero zehazten ditugu gauzak maiatzak 1ean dena ondo ateratzeko.

Zuretzat santa krutzetako zein momentu da onena?

Bukatzen denean